

“AMAURRE KATE GOXOA”

Nahiz eta distantziak mantentzea izan ikasturte honetan elkar zaintzeko kontsignarik garrantzitsuenetako bat, ezin dugu elkarrengandik aldendu hurbiltasunaren eta partekatzearen garrantzia. Kutsatzea eta transmititzea kezka-sinonimoak diren garai hauetan, ez dugu ahaztu nahi pertsonok poza, laguntza, hurbiltasuna eta indarra kutsatzeko eta transmititzeko dugun gaitasuna, nahiz eta gure artean distantzia egon.

Hau dela eta, ilusio handiz aurkezten dizuegu “Amaurre kate goxoa” ekimena, pandemia garaian ziurgabetasuna gozatu eta une ilunak argitu nahi dituen katea izanik.

Kate hori bi alderdi desberdinen bidez sortuko da: alde batetik, etxeko galletak, familia bakoitzak eginak eta apainduak, eta, bestetik, galleta hori beste pertsona bati oparitzea, une honetan kutsatu nahi dugunaren distira erantsiz: alaitasuna, indarra, oroitzapenak, ilusioa... edozer dela ere barruan duzuen eta inguruan duzuenarekin partekatu nahi duzuen izanda.

Nola egingo dugu katea?

Parte hartzen duzuen guztiok nahi duzuen bezala sortu ahal izango dituzue galletak eta, horiek oparitzeko unean, argazki edo bideo bat egingo duzue galleta erakusteko, eta han azalduko duzue nori oparitzen diozuen eta zer kutsatu nahi diozuen.

Nola zabaltzen dugu gure kate zatia?

Sare sozialak erabiltzen badituzue, garrantzitsua da ikastetxearen izena jartzea eta ikastetxea etiketatzea **@amaurreikastetxea**; horrela, argazki guztiak jasoko ditugu eta guztiak bilduko ditugu. Bestela, posta elektronikoz bidali nahi badiguzue, **komunika@amaurre.eus** helbidera idatz dezakezue.

Ikastetxean, horma-irudi bat sortuko dugu, zuen galleten argazki guztiekin eta haiekin oparitzen ari zaretenarekin, eta, hala, Gabonak baino lehen, guztion artean sortutako katea osorik izango dugu eta Amurrioko emparantzan aurkestuko dugu.

Amurrioko herriari zabaltzen diogu gonbidapena eta animatzen dugu parte hartzera, oso erreza da eta denon artean gure baliorik positiboena kutsatu ahal ditugu.

Hemen gosea zabaltzeko...

Amaurre Ikastetxearen errezeta:

250 g ilusio

150 g konpromezu

50 g sormen

2 koilarakada hurbiltasun

Magia-tanta batzuk

ON EGIN!



Informazio gehiagorako:

- Komunikazio taldea: komunika@amaurre.eus
- Telefonoa: **945 39 35 44**
- Helbidea: **Dionisio Aldama, 16, 01470 Amurrio. Araba.**
- Webgunea + sare sozialak:

www.amaurre.eus

www.facebook.com/AmaurreIkastetxea/

<https://www.instagram.com/amaurreikastetxea/>